

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak lanbide-heziketan teknologia berriak aplikatzeko proiektu batean parte hartzen du

*Iribas kontseilaria on-line prestakuntza praktikoko "Leonardo da Vinci" proiektu honen emaitzen aurkezpenean izan da gaur, Tuteran*

Viernes, 23 de septiembre de 2011

José Iribas Sánchez de Boado Hezkuntzako kontseilaria *Reworcom (Remote Workshop of Communications)* proiektuaren emaitzen aurkezpenean izan da gaur, Tuterako ETI Zentro Integratu Politeknikoa buru den proiektu bat, eta bertan Nafarroako Gobernuak parte hartu du. Proiektua LHrako "Leonardo da Vinci" Europako programaren barnean sartzen da, eta Espainiako lanbide-heziketako zentro batek 2009ko deialdian aurkeztu duen ezaugarri horietako berrikuntza-transferitzeko proiektu aldeaniztuneko proiektu bakarra da.

Proiektua zabaldutako kode baten plataforma bat sortzean datza, urrutitik on-line bidez prestakuntza praktikoa egin ahal izateko, ekipamenduak Lanbide Heziketako zentroetan kokatuta edo munduko edozein lekutan kokatutako enpresatan. Era horretan errazten da, ikasleak, Internet erabiliz, sistema fisiko batzuetara urrutitik sartzeko aukera, eta baita irakasleak teoriako eskoletara era elkarreragilean ematea ere; hala, praktikak azalpen teorikoekin bat egitea lortzen da.

Tuterako ETIk "ikaslearentzako elektronikako entrenatzaile pertsonal" batzuk garatu zituen 2004. urtean Lanbide Heziketan berrikuntza-proiektuen lehen deialdiaren barnean. Kostu txikiko praktikak egiteko elektronikako maketa modular batzuk ziren, eta ikasleak bere etxera eraman zitezkeen praktikak egiteko. Bere garaian, maketa horiek LHko beste zentroetara eta Bigarren Hezkuntzako zentroetara orokortu ziren teknologiako praktikak egiteko eta, lortutako arrakastaren ondoren, urrutitik edo on-line bidez erabiltzea erabaki zen.

Proiektuan zazpi herrialdeetako bederatzi bazkidek parte hartu dute: Espainiatik, Tuterako ETIk, Nafarroako Gobernuak eta Berrikuntzako Nafarroako Agentziak parte hartu dute, eta haiei egokitu zaie elektronikako maketa didaktikoak egitea, urrutiko kontroleko sistema, proiektuaren koordinazio tekniko eta administratiboa, aholkularitza tekniko eta sistemaren difusioa; Greziak (Moodle 2.0 prestakuntza-plataforma proiektuaren helburuei egokitzeaz arduratu da; Austriak (Education Highway GmbH enpresak multimediatiko unitate didaktikoak sortzeko programa bat edo Wizard bat garatu du); Italiak (Florentziako Leonardo Da Vinci LHko zentroak Bideokonferentzien Sistema garatu du); Suediak (enpresa batek datu-basea sortu du); Frantzia eta Turkiak (plataforma probatu dute, unitate didaktikoak sortu dituzte eta edukiak beren

hizkuntzetara itzuli dituzte).

Ekitaldian, Iribas kontseilariak azpimarratu du proiektu hau behar bezala egokitzen dela Nafarroako Gobernuak IKTen eta Lanbide Heziketako berrikuntzaren alde egiten duen apustuaren barnean.

Gainera, aurkezpenean nabarmendu da sistema honekin kalitatezko lanbide-heziketa praktikoa biztanle guztiei zabaltzea bilatzen dela, eta Lanbide Heziketako ekipamenduan egindako inbertsio handiari eraginkortasun handiena eta erabilera handiena lortzea; izan ere, ikasleek urrutitik erabil dezakete eskola-orduetatik kanpo eta baita ikastetxera joan ezin duten langile edo langabeek ere". "Prestakuntza klasikoaren osagarri interesgarri honek ikasleen ikaskuntza modu aktiboago eta erakargarriagoan hobetzeko aukera eskaintzen du, multimedia materialen bidez", adierazi dute proiektuaren arduradunek.

Horrez gain, kasu honetan elektronikaren ikaskuntzari aplikatzen zaion arren, edozein ekipamendu teknologikora heda daiteke.

### **Sistemaren konposizioa**

Reworcom-ak honako elementu hauek barne hartzen ditu:

- Urrutitik eragin daitezkeen (analisiak, neurketak, manipulazioa, programazioa, e.a.) eredu batzuk (mikroprozesagailuak, robotak eta telefonoguneak).
- Urrutiko jardueretarako telekomunikazio-ingurune bat.
- Burututako prozesuak denbora errealean ikusteko urrutiko ikuspen-sistema bat.
- E-learning azpisistema osoari eusten dion irakaskuntza-plataforma bat.
- E-learningari didaktikoki laguntzeko ezagutzazko datu-base bat.
- Bideokonferentzia-sistema bat, hezkuntza-komunitateko kideek parte hartu ahal izateko.
- Bereziki e-learning euskarrira bideratutako multimedia unitate didaktikoak sortzeko laguntza-softwarea.